


Arraina

Arrain untzi bat egin gelan eta erakusketa bat antola.



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Ahoskera

/k/ *ttiki, igerika, ideki...*

/t/ *bustidura : ttiki, amatto, ttitta, Kattin, Pettan, ttaka-ttaka...*

Esaldi hau bustidurak erabiliz erranaraz. Adib. :

– Petan eta amato sartu dira xakur tipiaren tegian eta Patu haundia agertu zaie.

Harridura adierazleak

To ! No ! Hara ! Hori ! Soizu ! Begira !

Itsas mundua

« burbuila » hitza irakasleak azaltzen du.

Non egiten da igerika ? *Itsasoan, errekan, igerilekuan...*

Itsas animalia mota zenbait : *amurraia, marrazoa, izurdea, etabar...*

Bi sarbideko taula egin daiteke

	itsasoa	erreak	arrain untzia
marrazoa			
arrain gorria			
amurraia			
izurdea			

nor indikatiboan.
Ezezko formak.

– Arrain gorria itsasoan bizi da.
– Ez, arrain gorria ez da itsasoan bizi.

Antonimoak lantzen

Handi/tipi :

Marrazoa arrain *handia* da.

Arrain gorria arrain *tipia* da.

Ideki/hetsi :

Ahoa *idek*, ahoa *hets*.


Atea *idek*, atea *hets*.



Arraintegia egin : eskulana

Arrain untzia egin (edo egina ekarri) eta kartoizko arrainak lot.

Tipiak eta handiak, gainean eta beherean ezar eta mintzatzeko parada eman.



-N inesiboa.

– Non da arrain tipia ?

– Arrain tipia gainean / eskuinean / beherean da.